

IRAKASLEAK

ATXIKIPENAK - ADSKRIPZIOAK

Laster atxikipenen prozesua martxan jarriko da. Gogorarazi nahi dizuegu borondatez parte hartu nahi baduzue, **urriaren 26ra arte**, hau barne, ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi beharko diozuela. Informazio eta araudi guztia [Hezkuntzako web orrian](#) aurkituko duzue.

2020-2021 ESTATU MAILAKO LEKUALDATZE LEHIAKETA

Laster deialdia aterako da, 20 eguneko epea egongo da eskaerak egiteko eta behar izanez gero, merezimenduak aurkezteko aukera ere izango duzue.

Lekualdatze lehiaketako informazioa guztia [Hezkuntzako web-orrian](#) argitaratuko da.

2019ko EPE. Maisu-maistrak. Praktikaldia arautzen duen Ebazpena argitaratu da [Hezkuntzako web-orrian](#).

2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

- **Epaimahaien eta batzorde barematzaileen** egoitzak zein kideen zozketa gauzatu da. Informazioa [Hezkuntzako web-orrian](#) ikusgai.

- **Hizkuntza-eskakizuna (HE2)** ziurtatzeko dokumentazioa.

- o **Argibideak** eta aurkeztu behar duten **izangaiei zerrenda**: urriak 20an.
- o **Egiaztagiriak aurkeztu**: 2020ko urriaren 21etik 30era arte, biak barne.

- **Programazio didaktikoa.** Programazio didaktikoa ez aurkezteagatik baztertuen behin-behineko zerrenda.

- o **Argitaratze data**: 2020ko urriaren 22an.
- o **Erreklamazio epea**: 2020ko urriaren 23tik 29ra arte, biak barne.

MAHAI SEKTORIALAK, SEKTORE GUZTIETAN.

LAN BALDINTZAK NEGOZIATU!